

Zuzenbide Fakultateko Akademia Antolakuntzako Batzordeak onartutako irizpideak ebaluazio berezirako eskaerak ebaluatzeko graduako ikasketetan

Akademia Antolakuntzako Batzordeak onartu ditu ebaluazio berezirako eskaerak ebaluatzean kontuan hartu beharko diren irizpideak, betiere Graduako Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak III. kapituluko 29. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak badira. Irizpide horiek aplikatuko dira fakultatean irakasten diren graduetako ikasleek egindako eskaerak onartu ez badira ez dituztelako betetzen aipatutako arautegiko 30. artikuluko a) atalean adierazitako baldintzak.

Zuzenbide Fakultateko epaimahai bereziek aztertuko dute ondoren aipatzen diren **baldintza guztiak betetzen direla**, hartuko diren erabakiak behar bezala oinarrituta egon daitezen:

- a) Hiru egoera hauetako bat behintzat gertatzea (behar bezala justifikatu beharko dira agiri ofizialen bitartez):
 - I. Ikaslea eskoletara joan ezin izatea gaixotasun larria duelako (edo osasuna arriskuan jartzen duena).
 - II. Ikaslea eskoletara joan ezin izatea mendekotasunen bat duten pertsonak eta/edo 12 urtez beherako haurrak zaindu behar dituelako (ikaslea zaintzaile nagusia edo gurasoa izanik).
 - III. Ikaslea eskoletara joan ezin izatea egoera sozio-laborala dela-eta (ikaslea familia unitatearen hornitzaile nagusia izanik).
 - IV. Aipatutako egoeren antzeko batean egotea, behar bezala justifikatua.
- b) Ikasleak parte hartu izana ebaluazio berezia eskatu aurreko azken deialdian.
- c) Ikaslearen espedientea izatea egiten ari den graduako batez besteko nota, gutxienez.
- d) Ezingo da gainditu ebaluazio bereziaren bidez sail bereko irakasgai bat baino gehiago.

Epaimahai Bereziko kide guztien iritziz salbuespenezko baldintzak badaude, epaimahai horrek erabaki dezake ez aplikatzea zorrozki aipatutako baldintza kuantitatiboak.

Zuzenbide Fakultateko Akademia Antolakuntzako Batzordea